

# GREBA BATZORDEA (ELA-CIM-UGT-LAB-ESK)

## Prentsaurrekoko testua osorik

---

---

EGUNON!

Hasteko, eskerrik asko gure prentsaurrekora etorri zareten hedabide eta pertsona guztioi ELA, CIM, UGT, LAB eta ESK, sindikatuok osatzen dugun Greba-batzordearen izenean.

Gaurkoan hiru gai azpimarratu nahi ditugu:

### **Lehena: “Metro-zerbitzuaren degradazioa”**

Auzi honetan guztian zehar zuzendaritza langileoi leporatzen saiatzen ari da bere ezgaitasuna. Gezur eta filtrazioen bidez pribilegiatuak garela, dirutza kobratzen dugula, interes politikoek bultzatzen gaituztela, sabotajeak egiten ditugula eta hainbat eta hainbat zabarkeria aurpegiratu digute. Orain alper eta gaizkiletzat jo gaituzte.

Ez dugu ulertzen zuzendaritzak bere langileei erasotzea eta bere frustrazio eta ezgaitasuna guri leporatu nahi izatea. Laster damutuko zaien giroa sortzen ari dira. Beren adierazpen maltzurrekin tentsio handiko egoerak bizitzen ari dira geltokietan eta trenetan, zoritxarrez. Horregatik berriro eskatuko diogu zuzendaritzari prentsako gezur eta filtrazioak alboratzeko eta Metro Bilba osatzen dugun guztion profesionaltasuna defendatzeko.

2012an modu interesatuan murrizten ari da zuzendaritza tren eta geltokietako zerbitzua. Gero eta tren gutxiago dabil, ez da errefortzurik jartzen partida, manifestazio eta ekitaldi berezietarako, geltoki askotan ez da inor aritzen asteburuetan eta gero eta jende gutxiago jartzen ari dira zerbitzua emateko. **Bizkaitarrok orain arte izan dugun metro-sistema suntsitu nahi dute, orain artekoa behin betiko amaitzeko modua lantzen ari dira, eta horretarako absentismoa bezalako aitzakia merkeak bilatzen dituzte.**

Greba-batzordeak gizartearen beharretara egokitutako zerbitzua mantentzeko eskatzen du, orain arteko kalitate berekoa, eta negoziazio kolektiboan adostutakoa zorrozki betetzea.

### **Bigarrena: ostiralean, martxoak 16, izango den epaiketa**

Ostiralean, martxoak 16, 9:30ean zuzendaritzak lantaldea osatzeko moduari buruz jarri duen demanda aztertzeko epaiketa izango da Bilboko epaitegietan.

Zuzendaritzak erabat “*sálvame de luxe*” estiloan antolatu duen epaiketa horretan auziaren bost puntuetako bakarra soilik ebatziko da.

**Horregatik, Greba-batzordeak argi utzi nahi du emaitza dena delarik ere ez duela konponbidea ekarriko. Irtenbidea hitzarmen kolektiboa eta barruko araudia zorrozki betetzetik etorriko da.**

Gainera, negoziazio kolektiboaren markoa errespetatzeko ere eskatzen diogu zuzendaritzari, azkeneko hilabeteotan negoziazio-foro guztiak deslegitimatzen ari direnez gero. Lan Harremanen Kontseilua bezalako erakundeak ere gutxien ari dira. Erabaki eta akordioak bete, ongitu lan harremanak, mesedez.

### **Hirugarrena eta azkena, martxoaren 24an, larunbata, deitu dugun manifestazioa**

Harro gaude orain arte egin ditugun elkarretaratze eta manifestazioetan etxeko, lagun eta beste enpresa batzuetako kideekin 500 pertsona ere biltzeko gai izan garelako, gure aldarrikapenak babes handia eta askotarikoa dutela ikusi dugulako.

# GREBA BATZORDEA (ELA-CIM-UGT-LAB-ESK) Prensaurrekoko testua osorik

Iazko maiatzaren 25ean, mobilizazio eta lanuzteei ekin genienetik, 22 lanuzte partzialeko egun eta egun osoko lanuzte bat egin ditugu Metro Bilbaon, guztira 94 ordu. Gainera, bi manifestazio handi ere egin ditugu Bilbon, baita elkarretaratze ugari ere, 40tik gora. Greba-batzordeak gogora ekarri nahi dugu auzia zuzendaritzak bi aldeon kontziliazio-prozesu bati uko egin diolako luzatzen ari dela.

Horregatik dei egiten dizuegu egoera honek gogotxartuta zaituzten guztioi eta langileoi elkartasuna erakutsi nahi diguzuen guztioi ELA, CIM, UGT, LAB eta ESK-k deitu dugun manifestazioan parte hartzera. **Martxoaren 24an, larunbata, 17:30ean abiatuko gara Plaza Eliptikotik Arriagarantz, “Metro Bilbao Solución Ya! Murrizketarik ez! Bete akordioak” lelopean.** Erakutsi diezaiogun Metro Bilbaoren zuzendaritzari oker dabilela langileak kriminalizatzean, ezin duela enpresa gizarteari bizkar emanek kudeatu. Erakutsi diezaiogun oker daudela, eta konponbidearen aldeko apustua egin behar dutela lehenbailehen, lan-arauak errespetatuz.

**Kalitatezko metro-zerbitzuaren alde, herritar guztientzako metro-zerbitzuaren alde, larunbatean, martxoak 24, denok Bilbora, manifestaziora.**

**METRO BILBAO Konpondu orain!**

Bilbon, 2012ko martxoak 13

## Eledunak

*Euskara: Uxune Iriondo (Enpresa-batzordeko kidea -LAB-)*

*Gaztelania: Rafa Valencia (Enpresa-batzordeko presidentea -ELA-)*

The poster features a central photograph of a large crowd of people holding a white banner that reads "En defensa de nuestros derechos Bete akordioak!". The banner also includes the text "Enpresa Batzordea METRO BILBAO".

**INCUMPLIMIENTOS:**

- Cobertura de plantilla
- Reestructuración área de mantenimiento
- Servicio de Nochebuena
- Servicio trenes 2012
- Reducciones de jornada por guarda legal

**INPOSIZIOAK:**

- Soldatak izoztu
- Dirua bueltarazi

**aski da!**

**ELA LAB UGT ESK CIM**

**Metro Bilbao ¡SOLUCIÓN YA!**

**LARUNBATA 24 17:30etan**

**plaza ELIPTIKOTik ARRIAGArA**

**MURRIZKETARIK EZ! AKORDIOAK BETE!**

**MANIFESTAZIOA**

# COMITÉ DE HUELGA (ELA-CIM-UGT-LAB-ESK)

## Texto íntegro de la rueda de prensa

---

---

EGUNON!

En primer lugar, las personas que componemos el Comité de Huelga y que representamos a los sindicatos ELA, CIM, UGT, LAB y ESK, queremos agradecer la asistencia de los medios de comunicación a esta rueda de prensa.

En esta cita de hoy, queremos resaltar 3 aspectos fundamentalmente:

### **El primero de los aspectos es la “Degradación del servicio de metro”.**

A lo largo de todo el conflicto la dirección está tratando de culpar a la plantilla de su propia incapacidad. Nos han acusado a través de mentiras y filtraciones de ser privilegiados, de cobrar grandes cantidades de dinero, de atender a intereses políticos, de cometer sabotajes... y ahora también nos acusan de ser vagos y maleantes.

No entendemos que la dirección ataque a sus propias trabajadoras y trabajadores, y que busque lanzar contra ellos su propia frustración e incapacidad. Están creando un caldo de cultivo del cual, más pronto que tarde, se arrepentirán. Debido a sus declaraciones incendiarias, se están produciendo en las estaciones situaciones de mucha tensión que tal vez, y en un futuro no muy lejano, todos y todas lamentemos. Es por ello que exigimos, de una vez por todas, que la dirección acabe con las mentiras y filtraciones en prensa, y defienda la profesionalidad de todas las personas que componemos Metro Bilbao.

En 2012 el servicio de trenes y estaciones está siendo reducido de manera interesada por la dirección. Cada día el número de trenes diario es menor, no hay refuerzos para partidos, manifestaciones y eventos especiales, y es una constante que muchas estaciones no cuenten con personal de atención al cliente durante el fin de semana, y que se reduzca el número de personas necesarias para la prestación del servicio. Utilizan la excusa del absentismo, pero no es cierto. **Su verdadera intención es cargarse el sistema de metro que hasta ahora hemos estado disfrutando las y los vizcaínos, están preparando una pista de aterrizaje para que en poco tiempo puedan dar una estocada a lo que hemos conocido como servicio de metro hasta el momento, y para ello buscan excusas espurias como el absentismo.**

El Comité de Huelga solicita que se mantenga un servicio adecuado a las necesidades de la sociedad y con los mismos parámetros de calidad que los utilizados hasta el momento. Y para ello es imprescindible que se respete de manera escrupulosa lo acordado en la negociación colectiva.

### **El segundo de los aspectos a resaltar es el Juicio del viernes 16 de marzo.**

Este viernes 16 de marzo, a las 9:30 horas, se celebrará en los juzgados de Bilbao el juicio por la demanda interpuesta por la dirección acerca de la cobertura de plantilla en conducción.

Este juicio, que la dirección ha preparado al más puro estilo “*sálvame de luxe*”, solo aborda una parte de uno de los cinco puntos que actualmente conforman el conflicto.

**Por este motivo, el Comité de Huelga quiere dejar claro que sea cual sea el resultado, éste no supondrá la solución al conflicto. Es por ello que instamos a la dirección a afrontar el conflicto de manera global. Los 5 puntos deben ser tratados en su totalidad y respetarse escrupulosamente lo recogido en el convenio colectivo y la normativa interna.**

# COMITÉ DE HUELGA (ELA-CIM-UGT-LAB-ESK)

## Texto íntegro de la rueda de prensa

---

---

Además, solicitamos a la dirección que respeten el marco de la negociación colectiva, ya que estos últimos tiempos están deslegitimando todos los foros de negociación, e incluso despreciando instituciones como el Consejo de Relaciones Laborales (CRL).

Exigimos a la dirección que respete de forma escrupulosa todos los acuerdos y solicitamos que restañe las relaciones laborales respetando los marcos definidos para ello.

### **Y finalmente, el tercero de los aspectos reseñables es la Manifestación del sábado 24 de marzo.**

Hasta el momento ha sido para nosotros y nosotras un verdadero orgullo haber contado con la participación en concentraciones y manifestaciones con más de 500 personas entre trabajadores, familiares y compañeros de otras empresas, esto nos ha demostrado que nuestras reivindicaciones son respaldadas por una mayoría amplia y plural.

Desde el 25 de mayo del pasado año, fecha en que se iniciaron las movilizaciones y paros, **la plantilla de Metro Bilbao ha realizado 22 jornadas de paros parciales y una jornada de huelga de 24 horas, todo ello suma 94 horas de huelga hasta el momento. A esto hay que sumar dos grandes manifestaciones realizadas en Bilbao e innumerables concentraciones, a día de hoy más de 40.** El Comité de Huelga de Metro Bilbao recuerda que esta situación de permanente conflicto es debida a la cerrazón de la dirección a realizar un proceso de conciliación entre ambas partes que permita dar cauce al conflicto laboral y restablecer las prácticamente inexistentes relaciones laborales.

Es por ello, que hacemos un llamamiento a todas aquellas personas que quieran mostrar su malestar con esta situación, y mostrar su solidaridad con las y los trabajadores **a tomar parte en la manifestación convocada por los sindicatos ELA, CIM, UGT, LAB y ESK para el próximo sábado 24 de marzo, a las 17:30 horas desde la Plaza Elíptica, bajo el lema “METRO BILBAO ;SOLUCIÓN YA! No a los recortes. Cumplid los acuerdos”.** Es hora de mostrar a la dirección de Metro Bilbao que se equivoca al criminalizar a la plantilla, es hora de mostrar a la dirección de Metro Bilbao que no puede gestionar la empresa dando la espalda a la sociedad, es hora de demostrarles que están equivocados y que deben apostar por una solución de manera urgente y respetando la normativa laboral.

**Por un metro de calidad y que preste servicio a toda la ciudadanía, el sábado 24 de marzo todos y todas a la manifestación.**

**METRO BILBAO ;SOLUCIÓN YA!**

Bilbao, a 13 de marzo de 2012

**Portavoces.**

*Euskara: Uxune Iriondo (Delegada del Comité de Empresa -LAB-)*

*Castellano: Rafa Valencia (Presidente del Comité de Empresa -ELA-)*